

## Euskal Gatazka, erdigunetik ertzetara

**I**rratia entzuten ari zara, eta deklarazio politikoz bete da berriro ere.

Batasunakoaren ahotsak arrazoiz dio guzti-guztionak diren eskubide zibil eta politikoak jarri direla salmentan. Atutxa kasukoei ez zaie arrazoirik falta, ez baitira soilik euskal erakundeak egurtu, guztioi eman digute matrailan. Akordatu zara espainolistek antzera arrazoitu dutela beti, kontzejal bakoitzaren hilketarekin gu guztion barruetan hiltzen zela zerbait.

Parrokia politiko guztiek darabilte *logika bedakorra*: euren eskubideen atal egurtuak gizarte osoa egurtu ohi du. Olio orbanaren tesia.

Itzali duzu irratia, bizi pozak mehatxu egin baitizu alde egingo duela. Atera zara etxetik eta, atari aurrean geldirik, jendartea begiz jo duzu une batez. Gizarte hain egurtuaren ikarari erreparatu nahi diozu, Ritcher eskalan euskal gatazka herritarrengan sortzen duen lurrikara.

Bigarren pisuko alargunari erreparatu diozu lehenbizi, merkaturako bidean doa. Hildako senarra arnas ahokada bakoitzarekin errekuferatu gura luke. Behin esan zizun, malko fin batek bidea egiten ziola matrailatik behera, ez dela egunik senarraz akordatzen ez denik. Bizitza, hutsuneak beteko balio bezala. Iloba txikien alaitasunak bizipoz galanta ematen dio, eskerrak.

Auzoko neska nerabe bat aurreaurretik pasa zaizu ziztuan, etorkizuna proiektuz betea erakusten duen pausoa daroa. Bere aitak kontaktu zizun, belztutako azazkalen arteko *Ducadosari* bokazioz tiratzen ziola, tailer zikin batean lan egiteak, bere txarrean, baduela onurarik gaueko txandan. Alaba bientzat etorkizun errazagoa nahi luke, horixe du ipar.

Begirada jaso duzu eta hantxe bera, ohi duen pauso urduri eta nora-gabetuarekin. Ez dute askok jakingo ezkontza heterosexualetik ihesaldiak egiten dituela gizon gazteak, desioa beste gizon



KARLOS CORBELLA

batzuekin itotzeko.

Kaleko jendeari begira zabiltzala, irratiko deklarazio politikoak etorri zaizkizu gogora. Eta etxaurreko plazaren erdian irudikatu dituzue ahotsok, hustutako laranja kaxa baten gainean oihuka. Hyde Park-eko *speakers' corner* hartan bezalaxe. Oihuok suntsitu nahi lukete eguneroko istorio eta gatazkatxoek Euskal Gatazkarekiko agertzen duten autonomia lotsagabea: “Ez al zarete konturatzen?”.

Ahotsek euren egia erakutsi nahi diote herritarrari, Gatazkaren zipritzinekin nahitaez denok lohitzen garela, tamaina horretako era-

soen aurrean bizitza ezin dela izan *beste nonbait* gertatzen ari den hori. Supermerkatuek, turismo bulegoek, introspekzio psikologikoak edo Arraldeko Maria Luisaren heriotzak, ez luketela *res publica* kolonizatu behar. Horiek direla ertz, ez erdigune.

Dezibelioak sobera dituzte ahotsek, baina herritarrek ez dute inor txaloka hartu, ez dira bibaka hasi espiral hazkor eta gera ezinean. Batzuen aurpegi ezaxolatiak ikusi dituzue, beste batzuen begi zirrarak gabeak. Aldarte epelak, oro har. Nirvanatik urrun samar, den-denak.

Banaka bat geratu da entzule finarena eginez. Buruarekin baietz diote, zerbait egin beharko litzatekeela, eurak ere egurtuak sentitzen direla nolabait. Entzule gustura jardun ostean, badoaz, zereginak dituzte.

Euskal Gatazkaren lurrikarek betetzen dute tarterik horien bizitzetan. Epi-

zentroa ez, ordea. Gero eta gutxiago. Eta pentsatu duzu ez duela balio esateak, pose soziologikoz, politikarekiko ezaxola, aro postmoderno berriaren taupada dela, hala-behar jainkotiarrari lekua eginez bezala. Klase politiko osoak agertu duen ezintasun paregabearen seinale ere bada. Lehenbizi politikaren ezintasuna dugu, gero dator politikarekiko herritarren deslotzea.

Gaua da eta, etxeratzean, telebista piztu duzu. Ezindu horiek ari dira bozka eske, berriro ere. ■

«  
Buruarekin baietz diote, zerbait egin  
beharko litzatekeela, eurak ere egurtuak

sentitzen direla nolabait (...).

Euskal Gatazkaren lurrikarek betetzen  
dute tarterik horien bizitzetan.

»  
Epizentroa ez, ordea. Gero eta gutxiago

